

# Kontsumo jasangarriaren inguruko argazki eta marrazki lehiaketa



Aurtengo ikasturteko gaia den **KONTSUMO JASANGARRIA** oinarritzat hartuta, IV. argazki eta marrazki lehiaketa egitea proposatzen dugu. Lehiaketa honen bidez, gaiaren inguruko gehiegizko kontsumoak eragindako kalteak adierazi daitezke edo kontsumo mota ezberdinen inguruko argazkiak ere aurkeztu daitezke (ura, hondakinak, teknologiak, erosketak eta energiarekin lotuta).

## **Lehiaketan bi kategoria ezberdindu dira:**

- LH batetik (marrazki lehiaketa)
- DBH-Batxilergoa-Goi maila bestetik (argazki lehiaketa)

Ikastetxe bakoitzak, aldez aurretik aukeraketa bat egin beharko du, lehiaketarako gehienez 10 proposamen aurkeztuz kategori bakoitzeko.

## **Marrazki bakoitzak bete beharreko ezaugarriak:**

- DIN A4 tamainan aurkeztu beharko dira, tamaina bereko kartulina batean itsatsita.
- Marrazkiaren atzealdean ikaslearen izena, ikastetxea eta maila agertu beharko dira.

## **Argazki bakoitzak bete beharreko ezaugarriak:**

- Koloreetan edo txuri-beltzean izan daitezke.
- Paper fotografikoan aurkeztuko dira eta DIN A4 tamainan, tamaina bereko kartulina batean itsatsita.
- Argazkiaren atzealdean ikaslearen izena, ikastetxea eta maila agertu beharko dira.
- Argazkia, ikasturtean zehar atera beharko da.
- Argazkia, ikasleak berak atera beharko du.

Lehiaketara aurkeztuko dituzuen argazkiak aldez aurretik digitalean bidali beharko dituzue Artelatzerara (Apirilaren 4a baino lehen) eta Eskolen arteko Forora eraman aipatu ditugun ezaugarriak betetzen dituztelarik. Marrazkiak zuzenean eraman ditzakezue.

Bi kategorietan prozedura desberdina jarraituko da. Argazkiekin orain arte bezala jokatu da, hau da, forora joango diren ikasleak izango dute epaile papera, argazki hoberena aukeratuz. Ikasle bakoitzak bozka bat eman beharko du. Marrazkiekin ordea zozketaz jokatu dugu. Aurkeztu den marrazki bakoitzak zenbaki bat izango du eta horrela denak aukera berdinak dituzte, LHko 1. mailatik hasita 6. mailararte.

Argazki eta marrazki irabazleen egileen ikasgelak izando dira sarituak.

